

## **ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA**

**GAIA: 3/2013**

### **ERABAKIA EUSKO JAURLARITZAKO ZUZENDARI (...) (e)k PLANTEATUTAKO GAIARI BURUZ**

1. 2013ko irailaren 10eko mezu elektronikoko baten bidez, interesdunak kontsulta bat egin zion Batzordeari, "jarduera batean parte hartu baitut eta diruzko ordain bat kobratzekoa bainaiz. Etika Publikorako Batzordearen iritzia jakin nahi dut: ea egoki deritzon ordainik kobratzeari Etika eta Jokabide Kodearen ikuspegitik, garai batean hura sinatu bainuen, kargudun naizen aldetik". Interesduna Eusko Jaurlaritzako zuzendaria da.

Zehazki, azaldu zuenez, EHUren Udako Ikastaroetan parte hartu zuen, hitzaldi bat ematen.

Argitu zuenez, ikastarora gonbidatu zuten "aurrez EHUko irakasle izana nintzelako eta ikastaroa antolatu zuen ikerketa-taldean eta ikerketa-proiektuan parte hartua nintzelako. Gainera, Batzorde Betearazleko kide nintzen (...) (e)n".

Hori dela eta, "Etika Kodea onartzeko Erabakiko 11.3.3. artikulua ikusirik, uste dut ez dagoela inolako eragozpenik dagokion zenbatekoa ordaindu diezadaten, ikastaroan parte hartu bainuen nire kualifikazioen edo aurretiazko lanbide-jardueren arabera eta, gainera, ikastaroan parte hartzearen xedeak ez baitzuen batere zerikusirik zuzendari-kargua betetzearekin [11.4. artikulua]. Bestalde, kobratzea zilegi da sorkuntza edo ekoizpen zientifikoan aritu naizelako ere, ikastarotik sortutako argitalpenak adierazten duenez. Izan ere, ordaina eskatzeko, beharrezkoa zen idatzizko testu bat aurkeztea".

2. 2013ko urriaren 16an, ondokoa onartu du EPB Etika Publikorako Batzordeak:

### **ERABAKIA**

#### **I. AURREKARIAK**

1. Etikaren eta Jokabidearen Kodea (aurrerantzean, EJK) 2013ko maiatzaren 28ko bileran onartu zuen Gobernu Kontseiluak, politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza berrezartzeko asmoz.

Horretarako, Kode horrek identifikatzen ditu Eusko Jaurlaritzako goi-zuzendaritza exekutiboan parte hartzen duten kargu publikoei eska dakizkiekeen jokabide, jarrera eta portaerak identifikatzen ditu, modu horretan beren ekintzak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezzen Kode horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzera begira, Jaurlaritzaren erakunde-irudia babesteko, horren eraginkortasuna sendotzeko eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza inolaz ere ez murrizteko.

2.- EJK oinarrizko bost balioen inguruan egituratzen da –zuzentasuna, bikaintasuna, politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea, lidergoa eta berrikuntza– , eta funtsezko sei printzipioen gainean: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketarekiko erantzukizuna, gardentasuna eta gobernu irekia, zintzotasuna eta desinteres subjektiboa, begirunea eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, jokabide, jarrera eta portaeren katalogo handi bat biltzen du Kodeak, eta horiek guztiek osatzen dute EPBk bere jardunean baliatu beharreko erreferentziako parametroa, Kodera borondatez atxikitako kargu publikoek gai eta dilema etikoei buruz galdetzen diotenean.

Horri dagokionez, kodeak 16.3 ataleko lehenengo puntuan ezartzen du EPB izango dela "oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du".

## **II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI PLANTEATUTAKO GAIA**

1. Interesdunak kontsulta bat egin dio EPBri, jarduera batean parte hartu baitu eta diruzko ordain bat kobratzekoa baita. EPBren iritzia jakin nahi du: ea egoki deritzon ordainik kobratzeari EJKren ikuspegitik, garai batean hura sinatu baitzuen, kargudun den aldetik.

Zehazki, EHUREN Udako Ikastaroetan parte hartu zuen, "... " ikastaroan. Diruzko ordain bat kobratzekoa da eta, horretarako, hitzaldiaren idatzizko testua aurkeztu behar izan du, argitaratzeko.

Horregatik guztiagatik, EPBri eskatu dio iritzia emateko aipatutako egoeran diruzko ordaina kobratzeari buruz.

2. Batzordeari planteatutako gaia aztertzen hasi aurretik, aipatzekoa da EJK-k interes-gatazken inguruko zenbait jokabide, jarrera eta portaera arautzen dituela halabeharrez, horrelako dilema etikoak oso garrantzitsuak baitira kargu publikoen jardunean. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubideari buruzko berariazko arauak ezarriko du gaiari buruzko araudi espezifikoak; bereziki, kargua bete aurretik eta ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa. Diziplina- edo zehapen-araubidea ezarri ahal izango du araudi espezifikoak, eta, legezkoatasun-printzipioa kontuan hartuta, lege-mailako testu batean arautuko da.

3. Horrenbestez, EPBri ez dagokio ebaztea ea legezko bateraezintasuna dagoen Eusko Jaurlaritzako zuzendari izatearen eta, aditu den aldetik, interesduna jarduera akademikoetan, irakaskuntzan edo argitalpenean aritzearen artean. Aitzitik, EPBri dagokio ebaztea ea interesduna horrelako jardueretan aritzea eta ordain ekonomikoa kobratzea bat datorren EJKren oinarrizko balio, printzipio, jokabide eta portaerekin. Aurrekariei buruzko atalean azaldu dugunez, EJKren helburua da politikaren zentzu etikoa berreskuratzea, euskal

herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza sendotzeko; zehazki, Eusko Jaurlaritzaren eta hango arduradun politikoen eguneroko jardunean dutena.

4. Horren ondorioz, interesdunaren jarduna EJKn aurreikusitako balio, printzipio, jokabide, jarrera eta portaerekin bat datorren edo ez erabakitzea mugatuko da soilik Etika Publikorako Batzorde hau, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzari egokituko zaio erabakitzea, hala behar izanez gero, aitortzeko eskatzen den jarduera akademikoaren eta interesdunaren kargu publikoan jardutearen artean legezko bateraezintasunik dagoen edo ez, hala xedatzen baitu apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 16. artikuluan.

5.- Hau ezartzen du Kodeak 11.4 ataleko hirugarren paragrafoan Kodeari atxikitako goi-karguei buruz: "Inolaz ere ez dute onartuko ordainsaririk, diruz zein gauzaz, hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik, *salbu eta ekintzak aurretiazko lanbide-prestakuntzak edo -jarduerak direla medio gauzatzen badira, eta ekintza horretan parte hartzearen xedeak eta nolakotasunak bere karguarekin inolako loturarik ez badu*".

6. Interesdunaren idatzia aztertu eta edukia egiaztatu ondoren, aski kreditaturik gelditu da, EJKn ezarritakoaren ondorioetarako –ez baita EPB honen lana interesdunaren irakaskuntza-, ikerkuntza- eta argitalpen-ibilbidearen kalitate zientifikoa beste ondorio batzuetarako aztertu edo alderatzea–, "(...)" EHUren Udako Ikastaroetan "... hitzaldia "bere aurretiazko kualifikazioen edo lanbide-jarduerak aintzatetsita" eman zuela, eta horien jabe zela, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzako zuzendari izendatu aurretik. Interesdunaren beraren eskabideak dioenez, ikastarora gonbidatu zuten aurrez EHUko irakasle izana zelako eta ikastaroa antolatzen zuten ikerketa-taldean eta ikerketa-proiektuan parte hartua zelako. Gainera, Batzorde Betearazleko kide zen (...)(e)n".

Bestalde, hitzaldian landu zuen gaia landua zuen beste noizbait, eta jatorrizko irakasle-postuaren jakintza-arloko berezko analisi-elementu bat da, Eusko Jaurlaritzaren IREKIA orrian argitaratutako *Curriculum Vitaen* dioen bezala. Horregatik guztiagatik, kasu honek ez du urratzen EJK.

Are gehiago, ordaina kobratzeko, beharrezkoa da hitzaldia idatziz aurkeztea, eta hitzaldiak ikastaroaren gaiari buruzkoa izan behar du. Interesdunaren ekoizpen zientifikoa da oinarria, eta interesdunaren ekoizpen zientifikoak ez du batere zerikusirik Eusko Jaurlaritzako zuzendari izatearekin.

Aztertutako espedientetik ondorioztatzen denez, interesduna aditu ezaguna denez gero Zuzenbidean, aipatutako ikastaroan parte hartu izanaren "xedeak", printzipioz, "ez du batere zerikusirik Eusko Jaurlaritzako zuzendari gisa betetzen duen kargu publikoarekin". Eta ez du loturarik, hain zuzen ere, interesdunak egiaztatzen duelako alegatutako jarduera akademikoa eta horrek dakarren onarpena kronologikoki aurreragokoak direla Eusko Jaurlaritzako goi-kargu izatera iristea baino, eta hori osoki doitzen zaio aipatutako EJK-ko 11.4 "in fine" atalean ezarritako salbuespenari.

7. Are gehiago, kasu honetan ez dago harreman material zuzenik interesduna (aurrez) aditua den zientzia- eta jakintza-arloaren eta Eusko Jaurlaritzako zuzendari-lanetan egokitu zaizkion

eginkizun administratiboen artean. Hortaz, EJKrekin bat, goi-kargudun izateak ez du batere zerikusirik kargudunaren jarduera akademikoarekin, nahiz eta bi arloak zuzenbide-munduaren ingurukoak izan, interesdunak emandako hitzaldia "... buruzkoa baitzen eta, printzipioz, gaiak ez baitu zerikusirik Eusko Jaurlaritzako zuzendari-ardurarekin.

8. EPBren ustez, 11.4 atala sistematikoki hartu behar da aintzat jokabide "nagusi"ari buruzko esakunearen barruan; hona hemen azken hori: "Onestasanari, desinteres subjektiboari eta kargu publikodunen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak". Arauak zuzentasunaren balioa eta onestasanaren printzipioa babestu nahi ditu, bai eta, neurri batean, eredugarritasunaren printzipioa ere. Ildo horretan, EPBren ustez, interesdunak aipatutako jarduera akademikoan parte hartu izanak ez die eragiten aipatutako balio eta printzipioei, eta ez du zerikusirik EJK-k debekatzen dituen jokabideekin. Gainera, interesdunak noizbehinka parte hartu du horrelako jardueretan, bidezko baldintzetan dedikazio-orduen kopuruaren ikuspegitik.

9. Are gehiago, kasu hau sorkuntza edo ekoizpen "zientifiko eta teknikoko" kasu bat da, beharrezkoa baita hitzaldia idatziz aurkeztea ordain ekonomikoa kobratzeko -ordaina kobratzeari buruzkoa zen kontsulta-. EJK-ko xedapenek ezin dute mugatu ekoizpen zientifikorako oinarrizko eskubidea (Espainiako Konstituzioko 20.1.b) artikulua). Hau da, suposizio hori ez litzateke inola ere bat etorriko 11.4 atalean aurreikusitako adierazpidearekin. Zalantza egin daiteke, ordea, aipatutako Kodearen 15. atalarekin bat egiten duen, hau xedatzen baitu: "Betetzen duten karguaren ondorioz liburutan, aldizkaritan, egunkaritan eta beste edozein hedabidetan ekarpenak egiteagatik ez dute inolako ordainketarik onartu behar, baldin eta ekarpen horiek funtzioak betetzeari lotuta badaude". Kodearen interpretazio sistematiko bati helduz gero, galarazpen horren eragina goi-karguduna izatearen ondorio zuzen eta bistako gisa –kausazko lotura bat dela medio– liburu, aldizkari eta abarretan egindako ekarpenetara soilik mugatzen da, ekarpen horietan iritzi instituzional bat adierazten bada; baina ez izaera akademiko edo profesionaleko ekarpenak badira. Azken mota horretako ekarpenak beti babestuko ditu gorago aipatutako oinarrizko eskubideak. Areago aztergai dugun kasuan, izan ere, kargudun izan aurretik irabazitako lanbide-onarpena eta gai horiei buruz aitortu zaion aditu-izaera direla medio eskatzen baitzaio aipatutako udako ikastaroan parte hartzeko. Mota horretako esku-hartzeetan Eusko Jaurlaritzaren irudi instituzionala ez da kaltetzen, sendotu baizik. Badago bistako eta berezko mugaketa bat, ordea: motako horretako kolaborazio profesionalak goi-kargudun gisa ematen duen zerbitzu publikoko orduetatik kanpo gauzatu behar direla, beti ere.

## ERABAKIA

Interesdunak **ez du urratuko EJK baldin eta onartu egiten badu ordain bat kobratzea** EHUren Udako Ikastaroen barruan (...) buruz "..." izenburuko hitzaldia emateagatik -idatzizko testua argitaratzeko aurkezten duenean emango diote ordaina-, hitzaldia ez baitzuen eman kargu publikodun izateagatik (Eusko Jaurlaritzako zuzendari izateagatik). Izan ere, kargu publikodun izateagatik eman balu, ekarpenak egiteagatik diruzko edo gauzazko sariak onartzea bateraezina litzateke Kodearekin, hauek izan ezik: batetik, bidaiatzeko txartelak, hotela eta mantenua; eta, bestetik, betetzen duen karguagatik ohiko ohiturei edo kortesiari lotuta egiten

dizkioten emate eta opariak. Gainera, hitzaldiaren ordaina kobratzeko, beharrezkoa da hura idatziz aurkeztea. Hori dela eta, hitzaldia ekoizpen zientifiko bihurtuko da, eta Espainiako Konstituzioko 20.1.b) artikulua babestuko du, EJK-ko xedapenek inola ere mugatu ezin duten oinarrizko eskubidea baita.

Ilido berean, nabarmentzekoa da interesduna Eusko Jaurlaritzak esleitutako autoan joan zela Udako Ikastaroen egoitzara, Donostiara, baina bidaiatzeko gastuetarako eman zioten txekoa zegokion zerbitzu-zuzendaritzari bidali ziola bere garaian, hau da, jarrera eredugarria izan zuela, ordezkatzeko duen gobernuaren prestigioaren, duintasunaren eta irudi instituzionalaren onerako dena eta politikaren zentzu politikoa berreskuratzen laguntzen duena, euskal herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza sendotzeko; zehazki, Eusko Jaurlaritzaren eta hango arduradun eguneroko jardunean dutena. Batzordeak, bere aldetik, portaera hori azpimarratu nahi du.

### **Etika Publikorako Batzordea**

**Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 10a**